

Iñaki Zubeldia
Estibalitz Jalón

KATALINA

KONTALARI




 Pamiela
etxea

FAKTORÍA  DE LIBROS


Aspaldi hartan, mendiko belaze batean,
txitxarra zahar bat bizi zen.
Katalina zuen izena eta oso berritsua zen.

Egunero-egunero, antzinako istorioak kontatzen
zizkien bere bizilagunei, haurtzaroan berari amonak
kontatutakoak.

Behin batean, Katalina txitxarrak istorio hauxe
kontatu zien inguruko zomorroi:

An illustration on a teal background. On the left, a broken gramophone with a large, reddish-brown horn lies on the ground. Several records are scattered around it. A trail of small holes leads from the gramophone towards the right. On the right, a mole with large, round eyes and a pink nose is peeking out from a hole in the ground. A strawberry is nearby.

«Garai batean, amona mantal luzea zomorro txiki
bat zen, iglu baten itxurakoa, baina hego zurixkak zeuzkan
ia kolorerik gabekoak. Egun batean, marrubiak topatu
zituen belazean. Jan eta jan aritu zen, tripa bete arte
eta lo geratu zen. Hiru egun pasatu zituen lotan.
Esnatzerakoan, bere hegoek kolore gorri bizi-bizia zuten,
puntutxo beltzez apainduta.



Haren senitartekoek inbidia sentitu zuten, kolore eder hura ikusita, eta marrubiak jan zituzten tripa puztu arte. Lozorrotik irtetean, haiek ere marrubien kolore gorritz eta puntutxo beltzez apainduta esnatu ziren. Orduetik aurrera, amona mantangorri deitzen zaie eta orain askoz politagoak dira. Umeei asko gustatzen zaie haiekin jolastea.»

Zomorro guztiek ahozabalik entzun zuten
amona mantangorrien ipuina eta txalo beroa
jo zioten Katalina txitxarrari ipuina bukatzean.

Matxin hankaluzeak izan ezik.



–Zergatik ez duzu kontatzen hankaluzeon ipuinen bat?
–erregutu zion Katalinari.

–Zuek ez daukazuelako kontatzeko moduko istoriorik!
–Katalinak, haserre antzean.

–Ba..., egunen batean, gure historia kontatu beharko duzu.

Beste animaliek errukiz begiratu zioten
Matxin hankaluzeari, oso traketsa
eta baldarra baitzen eta ez baitzeukan
besteentzat deigarri izan zitekeen ezer.

Hurrengo goizean, pagoaren itzalpean,
bildu ziren zomorroak, eta Katalina txitxarrak
tximeletaren ipuina kontatu zien.



«Aspaldi hartan, tximeleta bat burumakur eta kopetilun ibiltzen zen, hegoak errauts kolorekoak zeuzkalako eta besteak bezain polita ez zelako.

Baina egun batez nekatu egin zen hegan ibiltzeaz eta lore koloretsuen artean pausatu zen atsedean hartzeko. Loreen edertasuna ikustean, negarrez hasi zen.





Haren malkoak loreen gainera erori ziren, eta loreen koloreak hegoetan itsatsi zitzaizkion, tximeleta batek sekula izan dituen kolorerik ederrenak hartuz.

Beste zomorroengana itzuli zenean, haiek ezin izan zuten harridura ezkutatu:

–Ooo! –oihukatu zuten zorabiatu-rik.

Orain, belazeko tximeletarik ederrena zen, eta agian, munduko politena ere bai.»





Berrito ere zomoroen esker oneko txalo hotsak entzun ziren. Eta Matxin hankaluzearen kexua.

–Noiz hitz egin behar duzu hankaluzeei buruz?

Txitxarra zaharrak ez zion begiratu ere egin eta atsedean hartzera joan zen. Kilkerraren kantu hotsak bakarrik alaitu zuen belazea.



Orduan hankaluzeak txingurri saiatua ikusi zuen,
gari alea bizkarrean zuela, inurritegirantz.
Gosea sentitu zuen Matxinek eta belar goxoenak
bilatzen hasi zen sabeleko zulo hura estaltzeko.

Landare berde bat aurkitu zuen, eta mendiko belar
goxoena izango zelakoan irentsi egin zuen.

Landare itxurako zera kiribildu hura malguki txiki
bat zen, norbaitek mendian galdutakoa.



Irentsi orduko, Matxin izugarrizko saltoak ematen hasi zen. Beste zomorroi iruditu zitzairen mendiz mendi joango zela salto haiekin.

Eta handik aurrera Matxinsalto deitu zioten.

Matxinek egin zezakeena ikusita, haren senideek laguntza eskatu zioten. Egun batzuk geroago haiek ere saltoka hasi ziren. Konturatu ziren beren atzeko hanka luzeak ez zirela arrastaka eramateko, saltoak egiteko baizik!

Belazeko beste zomorroek barre ugari egin zuten
ibilera xeibre hura ikusita. Baina, berehala
matxinsaltoei inbidia galanta izan zieten.

Intsektuen Joko Olinpikoak jokatu zirenean,
hankaluzeez jauzi proba guztiak irabazi zituzten.

Orain denek miresten zituzten matxinsaltoak.



Katalina txitxarrak hankaluzeari barkamena eskatu eta hurrengo bilerara gonbidatu zuen. Han kontatu zien matxinsaltoaren historia belazeko zomorro txikienei.

Ordutik aurrera, matxinsaltoen historia milaka aldiz entzun zen belazean Katalinaren ahotik, eta horrela, ahoz aho, guganaino iritsi da.



Katalina kontalari liburua haurrentzako **album ilustratuak**
sortzeko III. Etxepare Bekarekin saritua izan zen 2009. urtean



© Testua: Iñaki Zubeldia, 2009
© Irudiak: Estibalitz Jalón, 2009
© Argitalpen hau:


Pamiela etxea, 2010
Agustindarren industrialdea/Soltxate
G kalea, B6 nabea - 31013 Iruñea
pamiela@pamiela.com
www.pamiela.com

Kalandraka Editora, 2010
Italia 37 - 36162 Pontevedra
Telf.: 986 860 276
faktoria@faktoriakdelibros.com
www.faktoriakdelibros.com

Faktoria K de libros Kalandraka argitaletxearen atal bat da


Gráficas Anduriña-n inprimatua, **España**

Lehen argitalpena: **ekaina, 2010**

ISBN: 

LG: 

Eskubide guztiak erreserbatuak



Album ilustratu honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du.

